bagera
Donostiako
Euskaltzaleen Elkartea

EUSKARA ARDATZ

Egia auzoko irakasle, langile, guraso eta gazteak gara. Euskarak gure nazioaren ardatz izan behar duela pentsatzen dugunak. Mila ahalegin egiten ditugu ikastetxe, komertzio eta kalean, gure gazte zein helduek euskaraz hitz egiteko.

Une honetan kezka eta erronka berriek sortzen duten ilusioz begiratzen diogu gure herri euskaldunaren etorkizunari. Ekiteko prest!

Euskara eta pertsona kultua izatea eskutik datozen bi elementu direla sinesten dugun herritarrak gara euskararen osasunaren alde egunerokoan jarduten garenok.

Hala ere, batzuetan, gure ikasle, haur edo ilobei "euskara ez dago guai" bezalako esaldia entzunez nahigabetzen gara. Hortik, agian oker, eratortzen baitut espainolez jardutea guai dagoela. Tristeagoa da, norbanakoaren askatasuna aldarrikatuz, euskaldun kontzientzia izan beharko luketen helduen ahotan gaztelera entzuten dugunean.

Hala ere egoera hauek sor dezaketen garraztasuna, aurrekoan, auzoko euskara batzordeko kideok euskararen etorkizunaz zeuden indar gune, mehatxu, ahulgune, aukerez hitz egiteko gonbidapena jaso genuenean goxatu zen.

Handik sarritan lokartzen gaituzten nahigabe horiei buelta emateko aukera ederrak ditugula pentsatuz atera ginelako. Jarrera positiboa, itsukerian erori gabe, landu beharreko kontua baita.
Oker handirik gabe baiezta baitezakegu azken hamarkadatako euskara ezagutzarik handiena dugula Donostian 50 urtez beherako adin tartean.

Oker handirik gabe baiezta dezakegu Donostian kultura militantea eta kolektiboaren indar eraldatzailea bizi izan duen belaunaldia dugula gure artean. Euskarak oraingo eta etorkizuneko hirian dagokion lehentasuna eta presentzia izan dezan lan egiteko prest.

Euskarak presentzia txikia duen gazte edo heldu horiengana zubiak eraikitzeko prest.

Larunbat honetako mobilizazioan ikusi dugun bezala beste herrien, nazioen borroka eta loraldiak ikusiz gure txanda berriz noiz etorriko ote den amesten dugun herritarrak gara.

Gure ametsen neurrirako emaitzak lortuko ditugu herritarrak gara. Eta elkarren artean eraikitzen diren ametsak baino gauza ederragoak gutxi izaten dira.

Datorren Azaroaren 16 Donostiako Euskaltzaleen Topaketara gonbidapena jaso dugu, San Telmo Museoan, goizetik eguerdi arte, Donostian Euskaldunok ditugun erronkei aurre egiteko neurriak hartzeko. Bat egiteko.

Ziur gaude Donostiako beste auzokideek ere Donostia euskaldunaren ametsak bat egiten gaituela. Elkartu gaitezen eta egin dezagun Herria. Hiria.

Eneko Iztueta Azurmendi (Egiako Euskara Batzordeko kidea)